



Mugikortasuna, aztergai

Pertsonen joan-etorria aztergai Saretzen ekimenaren saio berrian, TOKIKOMekin eta EITBrekin lankidetzan / 6-9

AIURRI

Egitasmoen alderaketa

N1 eta A15 errepideen arteko lotunea aztergai izan zen Bastero Kulturgunean / 4

Goikoetxea urnietarra eta Eskudero andoaindarrak, lehiakide Berria Txapelketako finalean / 12

Andoaingo Lanbide Heziketaren eskaintza ezagutaraziko dute larunbat honetan, Azoka berezian / 15



Elkar mugituz egingo dugu

Bat egin EUSKARALDIAREKIN!

INFORMAZIO-MAHAIA:

Martxoak 27, osteguna. Espigoia-Kaimuturra. **19:00-20:30**

Martxoak 29, larunbata. Goikoplaza. **12:00-13:30**

Apirilak 4, ostirala. Plaza Morea. **18:00-19:30**

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

ANDOAINEN MARTXAN GAUDE!





Xabi Agirrezabala eta Manex Arrastoa Buruntzaldeko Etxebizitza Sindikatu Sozialistako kideak. AIURRI

"Batzuentzat egoerak jada eztanda egin du"

XABI AGIRREZABALA, MANEX ARRASTOA ETXEBIZITZA SINDIKATU SOZIALISTA
"Etxebizitzaren negozioari ez" lelopean nazio mailako manifestazioa antolatu du Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak Donostian, apirilaren 5ean

Xabier Lasa ANDOAIN

Zer dela eta egin duzue manifestazioarako deialdia?

Xabi Agirrezabala: Kalean, jendartean, komunikabideetan, politikagintzan... oso zabalduta dagoen kezka da, nahiz eta gero nork bere irtenbideak proposatu. Arazoaren gainean geuk ere irakurketa propioa egitea ikusi dugu premiazkoa, eta horri erantzuten dio mobilizazioak. Dena esatera, aurrez, eskualde mailan, batzar irekia antolatu dugu, nahi duenak etorri eta entzun ditzan etxebizitzari buruz sindikatuak dituen planteamenduak. Hernanin, Biteri kultur etxean izango da, martxoaren 29an, 11:00etatik aurrera.

Politikagintzatik datozen egungo proposamenek ez dutela etxebizitza

tzaren krisia konpontzen diozue. Nola erregulatu merkatua?

Manex Arrastoa: Funtsean, erakunde publikoak ez doaz arazoaren muinera, ez dute auzitan jartzen etxebizitzaren arazoak atzean daukan izaera merkantila. Guztiz barneratuta daukate hala izan behar duela izaera horrek, eta, hain zuzen, horixe da guk salatu nahi duguna.

X.A.: Azken aldian ezarri nahi dituzten neurriak sakontzera datoz merkantilizazio horretan, esate batera, salbuespen fiskalak etxejabeentzat edota alokairuak ordaintzeko diru laguntzak proposatzen ari direnean. Behar bada, laguntza horiek baliagarriak izan litezke bestela ordaindu ezingo lukeen jendearentzat, baina benetan horrekin lortzen

dena zera da, guztion diru publikoa jabeen poltsikora bideratzea. Etxebizitza gehiago erakitzea ere neurri horietako bat da, eta, bien bitartean, ez zaio garrantziarik ematen etxebizitza mordera hutsik egoteari, eta esate baterako, horietako asko turismo bideratzeari.

Turismoak eragin handia izan du, etxebizitza turistikoan agerpenekin. Eta, bestalde, merkatuan aukera murriztu egin da. Horien agerpena murrizteko gune tentsionatuak sortu dituzte hainbat udalerritan. Zein iritzi diozue horri?

M.A.: Herritar askori jada ezinezkoa egiten zaio egungo alokairuak ordaintzea, 800, 1.000 eurotan edo hortik gora daudena, eta, beraz, herritar horiei ez die askorik eragingo muga

jartzeak; muga jada gaindituta baitaude lehendik ere. Alegia, oraingo irabaziak murriztu egin beharko litzaizkieke jabeei, ez baita nahikoa mugak jartzea.

X.A.: Zenbait kasutan lagun dezake gune tentsionatuaren izendapenak; Prezioen igoerari muga apur bat zorrotzagoa jartzen zaizkiolako. Baina arazoaren sustraietara jotzeari egiten zaio uko beste behin: arazoari adabakia jartzera ere ez da iristen.

Stop Kaleratzeak-ek etengabe eragin nahi du alderdi politikoen, eurek hainbat neurri ezartzeko gaitasuna dutelako. Zein iritzi diozue plataformaren lanari?

M.A.: Badaukagu harremana berarekin, eta aitortu behar zaio erreferentzialtasuna Euskal Herrian eta Estatuan. Baina instituzio eta alderdi politikoei neurriak planteatzea eta presioa egitea da mugimendu horren lan-ildoak, eta, iruditzen zaigu bide horretatik ez zaiola benetako irtenbidea topatuko arazoari.

X.A.: Hernanin-eta batu izan gara bere ekimenetan, une jakinetan eta herritarren kaleratze egoerak eman direnetan. Baina ekinbidea instituzioetara bideratzeak bere arriskuak dituela iruditzen zaigu, horrek arriskua baitakar berarekin. 2008ko krisiaren ostean itxaropen handia jarri zen Podemos alderdiaren sorrerarekin. Baina gizartearen mobilizazio gaitasuna bereganatu, eta bide instituzionalari ekin zion. Denborak argi adierazi digu indargabetu egin zuela mobilizazio gaitasun hura. Azken batean, logika parlamentarioak gizartearen muskulua ahuldu egiten du, gero modu independentean antolatu ahal izateko.

Etxebizitza doakoa eta unibertsala eskatzen duzue. Baina nola iritsi horretara, jabetza pribatua hain errotuta dagoenean herritarren artean? Bide horrek ekimen publiko beharko luke, eta, horretarako, inoiz baino beharrezkoagoa beharko luke izan ekinbide politikoa.

X.A.: Utopikoa ematen du lehen entzunaldian, baina egingarria iruditzen zaigu. Gure gizarteak beregana dezakeen printzipioa dela uste dugu, baldin eta gizarte justu batez ari bagara. Eskakizun hori materialki gauzatzeko badauka gaitasun produktiboa eta ekonomikoa gure gizarteak; horretarako eta gehiagorako! Utopikoa ezer izatekotan, pertsona batek makina bat etxebizitza

zitzu edukitzea behar luke izan, eta hori da errealtatea egun, zoritxarrez. Doakotasunaren kontzeptua aldarrikatzen bada osasungintzan edota hezkuntzan, zergatik ez etxebizitzaren gainean?

M.A.: Epe motzera izan liteke utopikoa etxebizitzaren eskubidea doakoa eta unibertsala eskatzea, sistema kapitalista honetan negozioa baita etxebizitzaren arloa ere. Errealtate horretatik jakitun izanik, epe motzera eskatzen dugu zenbait neurri (salneurrien igoerari mugak jarri beharrean jaitzi, jabe handien etxe hutsak espropiatu ez daukatenei emateko...) har daitezela "doako eta unibertsalaren" printzipiora iristeko bidea erraztu lezakeelako.

Arreta zerbitzua eskaintzen duzue Buruntzaldeko herrietan. Zein behar, eskaera, kezka jasotzen ari zarete?

X.A.: Orain hiru bat urte sortu genuen sindikatua Buruntzaldean, eta bi arlotan banatuta daukagu gure lan-ildoak. Batetik, politikoa (mobilizazio desberdina, ideia zabaltzeko ekitaldiak...), eta, bestetik, aholkularitza-zerbitzua. Zerbitzu hori hiru modutara ematen dugu: 624 874 407 telefonora deituta, esindikatu.buruntzaldea@gmail.com e-postara idatziz edota Eskola kaleko Igara espaziora joz.

Jendearekin aurrez-aurre edukitako kontaktu horrek erakutsi digu gordina dela benetan errealtatea, eztanda egin duela jada egoerak batzuentzat. Etxegabetearen kasua etortzen zaigu burura berehala, hori delako komunikabideetan errazen zabaltzen dena eta kaleko gatazka ikusgarri egiten duena. Baina, makina bat kasu helduzkoak: jabeak maizterri errenta bat-batean izugarri igo diola; jabeak maizterri etxea uzteko agindu diola ilobarentzat behar duela argudiatuta, baina gero idealista. com-en salgai jartzen duela; 12 pertsona pisu ziztrin batean...

M.A.: Etxegabetearen fenomeno aldatu egin da azken urtetan eta jabearen profila ere aldatu egin da. 2008ko krisian, bankuak ziren etsaiak. Egundak, zabaldu egin da jabetzaren kontzeptua, eta edozein izan liteke etekina atera nahi duena: bankuak, inbertsoreak, funts putreak, geure bizilaguna... Nolabait esatearren, aldatu egin da testuingurua, baina errealtatea lehen bezain gogaikarria da.



Aurtengo edizioko banderatzoa. EUSKARALDIA

Euskaraldiko banderatzok, 5 eurotan salgai


Euskaraldiak aurtengo edizioa girotzeko banderatzok aurkeztu du

Erredakzioa ANDOAIN

Ahobizi edo *belarriprest* txapak ariketa sozialean parte hartuko dutenek eramango dute soinean. Baina, horrez gain, hainbat espazio eta gune Euskaraldiarekin identifikatzeko gonbita luzatu dute. Eta zer hobea espazio hori banderatzokarekin identifikatzea baino. Euskaraldiak aurtengo edizioko banderatzok aurkeztu du, eta 5 euroko salneurrian salduko da. Eskuratzeko modu bat baino gehiago izango da, besteak beste, Euskaraldiaren

gune ibiltarian eta Eroskiko merkatalguneetan. Euskaraldiak adierazi duenez, "banderatzokak, bereziki, ariketaren azken txanpa eta ariketa egunak girotzeko" baliagarri izango da.

Ikastetxeetan, dendatan, tabernatan, erakunde publikoetan... hamaika tokitan ikusiko ditugu Euskaraldiak iraun bitartean. Herritarrek ere euren etxeko leiho eta balkoietan jartzeko aukera paregabea dute. Izan ere, elkar mugituz egingo dugu Euskaraldia.



Ahobizi. EUSKARALDIA

Euskaraldiko batzar irekia egin dute Urnietan

Maiatza izango da Euskaraldiaren hilabetea eta data horiei begira ari dira lanean

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Batzordea martxan da eta hastapeneko lanetan herriko hainbat elkarte eta gizarte-eragile murgildu dira. Asteazken honetan ekimena herritargoari aurkeztu diete, antolatu zuten ekitaldi-irekiaren bitartez. Dagoeneko herria girotzeko afitzak ikus daitezke Urnietako kaleetan. Aste Santuak tartean dira, eta maiatza izango da Euskaraldiaren hilabetea. Horra begirako egitaraua osatzen ari dira Urnietan ere euskararekiko atxikimendua handitu dadin. Hizkuntza-portaeretan aldaketa txikiak eginez gero, euskararen erabilera nabarmen hazi daiteke.



Plaza Morean egingo dute ekitaldia. AIURRI

Apirilaren 4an aurkeztuko dute Andoaingo Hamaikakoa

Pixkanaka, martxa hartzen ari dira tokian tokiko eragileak, Euskaraldiari begira

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Batzordea martxan da. Dagoeneko herritarrek izena emateko informazioa jasotzen duen eskuorria zabaldu dute udalerriko buzoi guztietan. Izen-ematea indartzeko mahaia jarriko dute kalean, datozen egunotan:

- Martxoak 27, osteguna. Espigoia. 19:00-20:30.
- Martxoak 29, larunbata. Gokoplaza. 12:00-13:30.
- Apirilak 4, ostirala. Plaza Morea. 18:00-19:30.

Hamaikakoa

Euskaraldian ohikoa da Euskaraldiko Hamaikakoa osatzea. Konpromiso pertsonalak hartzeaz gain, enbaxadore diren heinean, beren inguruko kideei ekimenaren eta beren erabakiaren berri emango diete, eta euskara ulertzen duten hamaika lagun, senide, kide edo ezagunei Eus-

karaldian parte hartzeko gonbitea luzatuko diete. Euskal Herri mailakoan dagoeneko egin dute, eta herriz-herriko aurkezpenak asteotan egiten ari dira.

Aurkezpen ekitaldia, Plaza Morean

Andoaingo Hamaikakoa datorren apirilaren 4an aurkeztuko dute, Plaza Morean egingo duten ekitaldi-irekian. Izenak ez dituzte eguna iritsi bitarte aurreratuko, baina profilei dagokionez, honakoa aurreratuko dute: gizarte bizitzan eta euskararekiko konpromisoan euren aletxoak jartzen ari diren herritarrak dira: haietako batzuk, euren eguneroko konpromisoarekin; eta, beste batzuk, talde-lanean egindako ahaleginaren bitartez. Kultura, gizarte, kirola eta lan arloetakoak dira gehien-gehienak. Las-ter ezagutuko dira, beraz, Andoaingoen izen-abizenak.



Urnietako
udala



andoaINDARRA
euskaraz



Euskaraldia

EGIN KLIK!
Atal berezia
webgunean

aiurri.eus



Aurkezpen ekitaldia egin zuten Andoainean, astearte iluntzean. AIURRI

Errepide-sarea lotuko duten proiektuen alderaketa

Asmoa N1 eta A15 errepideen balizko lotuneen arteko alderaketa egitea zen. Baina alor teknikoak bezain besteko tartea hartu zuen alor emozionalak. Oraindik orain, afera minez bizi duen herritar asko dago eta min hori agerian uzteko aukera baliatu zuten

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Alderaketa teknikoak egitea zen xedea, baina Basteroko ekitaldi aretoko ekitaldian alor emozionalak tarte zabala hartu zuen. Bereziki, galde-erreguen tartean. Alderaketa teknikoak hotza eta zuhurra izaten da, ebidentzia ugarirekin eraikitzen dena. Alor emozionala beroa da, sentimenduek eta bizi-esperientziak baldintzatuta. 2011n A15 eta N1 errepidearen arteko lotunea amaitu gabe geratu zen: behin-

behineko soluzioa zela adierazi zuen orduko Foru Diputatuak. Bitartean, urte asko igaro dira eta errepidearen arazoari ez zaio irtenbiderik eman. Baina gainerako afekzioei ere arreta handirik ez zaie jarri. Azken sasoi honetan ekin diote zarata uxtzeko panelak jartzeari. Baina toki jakinetan. Buruntzan, Bazkardon, Sorabillan... urteak joan eta urteak etorri zarata pairatzen eta kutsadura irensten ari dira. Horregatik, batek baino gehiagok

nekez ulertzen zituen Alvaro Zumelaga, Sestra enpresako ordezkariaren azalpenak. Hark alor teknikoak azaldu zuen, baina ariketa nekeza da hori afera minez bizi duen bizilagunaren aurrean.

Herri-bilera bat egiten denean horrelakoak gerta daitezke, auziak sortzen duen atxikimenduaren arabera. Eta, gaia, gori-gori dagoela argi geratu zen. Andoaingo Plataformak defendatzen dituen tesiak argudio

ezberdinekin entzun ziren. Baina, kontrara, saihebidia txiki-zioarekin alderatzen zutenen iritzia ere entzun zen. Finean, talde terapia handi modukoa izan zen Basteron bizi izandakoa. Jon Unanue aurkezleak asmatu zuen emozioek eragin nabarmena zuten galde-erreguen txanda bideratzen. 2025era iritsita, harkadatan pilatutako minetik hitz egiten duten hainbat bizilagunek aukera horiek baliatzen dituzte euren eguneroko itogarriaz jendaurrean jarduteko.

Amaiera aldera, Andoni Alvarez alkateak adierazi zuenez, datozen hilabeteetan egitasmoak aztertze hitzaldiak antolatuko dituzte eta, erantsi zuenez, herritarrek foro horietan informazioa jasotzeko eta parte hartze-ko aukera izango dute. Adituen fasea iristear da, beraz. Behin hori igarota, udazkenerako, Gobernu taldeak iritzia eskatze-ko prozedura martxan jarri nahi du.

Balorazio teknikoa

Ezer baino lehen, zehaztapen bat egitea komeni da. Eta ez da txikikeria. Galde-erreguen atalean, herritar batek hizlariari Sestraren azterketak puntuazio onena ematen zion "Lazoaren" aukeraz galdetu zion, herritar hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren aukera hori zela baieztatzen ariko balitz bezala. Eta, ezustean, Alvaro Zumelagak harridura aurpegia jarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoaren berri ez zuela adieraziz. Alegia, aurreko astean aurkeztu zen "Lazo" horren informaziorik ez zuela esan zuen.

Bada, honaino iritsita, komeni da Bastero Kulturguneko hitzaldiaren muina zehaztea: Sestrak, Andoaingo Udalaren eskariz, N1 eta A15 errepideen lotunea konpontzeko azterlan konparatiboa egin du. Harira joanda, hiru egitasmo aztertu dituzte dozenaka parametro erabilita. Egitasmoak, esan bezala, hiru dira: lehena, udalerritik errepidea urrunduko lukeen saihebidia hobetua; bigarrena, lazoa izeneko (baina ez Aldundiak aurkeztu duena, Sestrak aurretik txosten honetarako garatu duena baizik); eta, hirugarrena, lehen bi proiektuen aldaera mixtoa. Puntuaketa egiteko, esan bezala, parametro ugari aztertu dituzte lau ataletan sailkatuta: bat, alor teknikoak;

bi, udalerrian eta herritarrengan duen eragina; hiru, ingurumena; eta, lau, kostu ekonomikoa.

2011ko saihebidia eguneratuak 5,6ko puntuaketa lortu du, lazoa izenekoak 5,8koa eta bien arteko lanketa mixtoak, aldiz, 5,2koa.

Galde-erreguen atalean azterlanari buruzko interpelazioak ez ziren gutxi izan. Udalerraren ikuspegitik, akaso, saihebidia izan daiteke aukera egokia. Baina ingurumenaren eta kostuen ikuspegitik, Zumelagak behin eta berriro errepikatutako hori ez zela aukera onena.

Luze jo zuen saioak, iluntzeko 19:00tan hasi eta gaueko 21:00tan amaitu baitzen aurkezpena. Eta ezin aipatu gabe utzi ekitaldiak piztu zuen ikusmina: ekitaldi-aretoa jendez bete zen eta erakusketa-aretoan jarri zuten bigarren gelan ere herritar ugari pantaila bidez jarraitu zuen aurkezpen-ekitaldia. Gaiak interes bizia pizten du andoaindarren artean. Eta orain, zer? Errepidea urrundu ala ez, hortxe egongo da eztabaidaren muina datozen hilabeteetan. Badira hori ingurumenaren ikuspegitik txikiziotzat hartzen duten ahotsak. Baina badira beste batzuk, saihebidiearen eskaera historikoari eutsi nahi diotenak. Eta horiek Andoaingo Plataformaren baitan antolatzen dira. Horien artean, bi iritzi azpimarragarri izan ziren. Andoni Etxezarreta arkitektoa da, eta honakoa adierazi zuen: "Azterlan serio bat dugu eta saihebidia aukeratzat hartzen da. Orain arte aukera hori ukatu egiten zen eta, orain, badakigu aukeren artean bat izan daitekeela". Udal langile izandako Ana Sanzek herritar askoren eskaera historikoa laburbildu zuen: "Andoaindarrok urteak daramatzagu lurraldeko egitasmo estrategikoak finantzatzen. Milioika euro gastatu dira inguruko udalerrietan errepidea herrigune horietako biziguneetatik aldentzeko. Ezin digute aukera hori ukatu andoaindarroi. Andoaingo herriaren txanda iritsi da. Gure aukera heldu da".

Eskumena, azken hitza, Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta erabakia hartzea erakunde horri dagokio. Andoaindarron ahotza askotarikoa da baina ezin uka udalerria zeharkatzen duen errepidearen gaindimentsioak herrikide asko asaldatzen duela, oraindik orain.

Greba egunak, hezkuntza publikoan

Gaur gaurkoz, ez da inolako adostasunik lortu sindikatuen eta Hezkuntza Sailaren artean. Ondorioz, grebara deituta daude, berriro ere, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko 27.000 irakasle, EAEn, baita Buruntzaldean ere



Elkarretaratzea, Urrietako Egape ikastolaren kanpoaldean, aurreko ostiralean. AIURRI

Erredakzioa ESKUALDEA

Asteartean, asteazkenean zein ostegunean egin dituzte protestak eta, egoera aldatu ezean, apirilaren 1ean eta 2an ere kalera aterako dira. Sukaldeko eta garbiketako langileei dagokionez, bertan behera gelditu dira mobilizazioak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta sindikatuek lortutako akordioaren ostean. Zer eskatzen dute irakasleek?

Lan-zamak arindu

Irakastorduak murriztea, etapa guztietan; baliabideen hornikuntza handitzea; burokrasia eta lan-zama arintzeko neurri zehatzak ezartzea.

Gazteberritze-plana

Erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea; lanaldia murrizteko eta metatzeko eskubidea onartzea.

Eros-ahalmena berreskuratu

Galdutako eros-ahalmena berreskuratzea.

Enplegua egonkortu

Lanpostu Zerrendak sindikatuekin negoziatu eta lanpostuak oposaketetara eta lekualdatzeta-

ra ateratzea; interinitate tasa erreala jaitea; lanpostuak estrukturalizatzea; Irakasle Teknikoen mantetzea Lanbide Heziketako Mahai Propioetan.

Atzerapausuak kendu

Hezkuntza Sailak aldebakarrez ezarritako murrizketak bertan behera uztea, udako kobraketa berreskuratzea; ordezkoen araudia negoziatu zein berritzea.

Lizentziak eta baimenak

Zaintzaren ikuspegitik, lan eta bizitza benetan uztartzeko neurriak ezartzea langile orori.

Lan-baldintzak hobetzeko planak

Azterketa medikoak izateko eskubidea bermatzea; osasun-arazoak dituzten langileen lan-baldintzak hobetzeko plan bat garatzea; hezkidetzarako plan egonkor eta kalitatezkoak ikas-tetxe guztietan garatzeko baliabide pertsonalak bermatzea; hezkuntza-sistema osoa euskal-herriko duen politikak ezartzea, ikasle eta langileen hezkuntza eskubideak bermatzeko; arrisku psikosozialen eta lanpostuen azterketa egitea.

Adin txikiko pertsona asko harrera-familia bat behar dute. Eta familia asko erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuena delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.

GIPUZKOA
Foru Aldundia



682554433





Amaia Ramirez DONOSTIA

Hiri, herri edo lurralde bateko mugikortasun ereduak, zenbateko esangura du? Edo zenbat adierazten du hiri, herri edo lurralde horren inguruan?

Mugikortasuna eta hirigintza, nire ustez, gauza bera dira ia-ia. Mugikortasunak hirigintza baldintzatzen du, eta alderantziz, asko esaten du herriaren historiari eta baita gure eguneroko bizitzari buruz ere.

Hitz egin al daiteke mugikortasun-hirigintza eredu on eta txar bati buruz?

Badira mugikortasun eredu onak eta txarrak. Lehenik eta behin, askotan aipatzen da gure helburua ez dela horrenbeste mugitzea, baizik eta, zerbitzu batzuetara iristea; horrenbestez, mugikortasun onena gertatzen ez dena da. Hots, gertukoa delako. Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izanez gero, ez da positiboa, eta gehiegi mugitu behar horretan hasten gara mugikortasun horren ondorio negatiboak pairatzen: emisioak, denbora, espazioa... Mugikortasun onena existitzen ez dena da.

Dena den, batzuk halabeharrez mugitu behar dira, lan kontuak tarteko edo bizi diren tokiarengatik. Orografia, biztanleriaren banaketa... Hori guztia kontuan hartuta, lurralde historikoak nahiko ezberdinak direla euren artean. Noraino baldintzatzen du horrek mugikortasuna eta hirigintza?

Erabat baldintzatzen du mugikortasuna. Araban, adibidez, hiriburuak biztanleriaren % 90 inguru biltzen du, eta, beraz, errazagoa zaie mugikortasuna hiri baten parametroetatik ulerzea; aldiz, Gipuzkoara joz gero, biztanleria sakabanatuago dago, herri txikiagoetan, nahiz eta ertainak ere badiren. Gure eguneroko mugimenduak lanarekin lotuta daude, bereziki, baina ez hori bakarrik. Ez dira soilik herri barrukoak, baizik eta, herrien artekoak. Eta herrien artekoak bihurtzen direnean distantzia batzuk, fluxu batzuk daude eta horiei modu jasangarrian erantzutea oso zaila da. **Nolakoak dira fluxu horiek tokiaren araberak?**

Arabian, esaterako, gehienbat Gasteizera eta Gasteiztik, eta Gasteiz barruan. Aldiz, Gipuzkoan, bailara barruan dezente mugitzen gara, baina baita batetik bestera ere, eta ez soilik

"Jende guztiak ibilgailua izatea ez da bideragarria"

ANDER GORTAZAR ARKITEKTOA, EHU-KO HIRIGINTZA SAILEKO IRAKASLEA

Gurea lurralde sakabanatua da, tamaina ertaineko udalerrri askorekin. Mugikortasunari erantzuteko ez dago errezeta bakarra eta, etorkizuna, erronkaz beterik dago



Ander Gortazar. GOIENA

herrietatik herrietara, baizik eta, herrien inguruan dauden industrigune eta hedadura handiko merkatalguneetara. Antzeko asentamentu batzuk daude herriak ez diren tokietan eta mugikortasunaren dispersio horrek, horrenbestez, asko zailtzen du hori modu erraz batean antolatzea.

Zailtasun nagusiak Gipuzkoan daude. Baita Bizkaian ere. Ez dago gune zentral bakarra, baizik eta lurralde askoz ere sakabanatuagoa. Eta hori, berez, ona da. Baina zailtasunak dakartza, sarritan, denok ia edozein tokira joan nahi izaten dugulako. **Datuetan oinarrituta, emakumezkoak gizonetako baino gehiago mugitzen dira oinez eta garraio publikoan, eta gizonetako emakumeak baino gehiago ibilgailu pribatuan. Zer diotsu horrek?**

Generoak asko baldintzatzen du mugikortasuna, eta azterketa zientifiko guztietan horrela jasota dago. Ez da datu arraro bat. Kontua da hori nola begiratzen den. Adibidez, guk begiratu ditugun datuetan ikusten ari gara gizonen eta emakumeen arteko arrakala txikiagoen ari

"INTERMODALITATEA BEHARREZKOA DA GUREA BEZALAKO LURRALDE POLIZENTRIKOAN"

dela, eta ez bereziki gizonen kotxe gutxiago hartzen dutelako, emakumeen mugikortasun ohi-turak gizonen ohi-turak hurbiltzen ari direlako baizik. Arrakala nabaritzen da 50 urtetik gorakoen artean, baina ez horrenbeste 40 urtetik beherakotan. Emakumeek historikoki pisu gehiago izan dute lan erreproduktiboan—haurrak, gurasoak zaindu, ospitalera eraman, erosketak egin...—, eta horrek ere beste mugikortasun ohi-tura batzuk sortu ditu.

Hiriak mugikortasuna bermatzeko prestatuta daude?

Hiri barruan mugitzea geroz eta errazagoa da, eta orokorrean, hiri kontsolidatuetan oinez ibiltzea erraza da. Arazo nagusia, egun, soldatapeko lanarekin dago lotuta. Historikoki eta, egun, soldatapeko lan asko hirien kanpoaldera eraman dugu lurra merkeagoa delako. Baina horrek ondorio batzuk izan ditu. Enpresari hobeto irtetzen zaio urrutira joatea, baina langileari, ez. Bada, goizetan, arratsaldetan ikusten ditugun soka asko horren ondorio dira. Paradoxikoa da: industria kutsatzailea zenean, hiri barruan zegoen eta, orain, gure enpresek kutsatze-ri utzi diotenean, hiritik kanpo eramaten jarraitzen dugu.

Garraio publikoa sustatzea da horri aurre egiteko modu bat?

Garraio publikoak izan behar du mugikortasunaren bizkar hezurra, baina eraginkor izateko behar du maiztasuna, pertsona fluxu bat... Aldiz, gure mugikortasun beharrak izugarri dispersatu baditugu, oso zaila da egoera horri garraio publikoaren bidez erantzutea.

Eta zein da egungo egoeraz egiten duzun balorazioa?

Ez da galdera erraza. Hirietan, adibidez, Donostia kasutzat hartuta, esango nuke nahi duenak baduela aukera. Baina, egia da, eskala handitzean eta lurraldean murgiltzen garenean, fedea eta militantzia behar dela garraio publikoari eusteko. Aldrietako trenarekin gertatu dena ikusi besterik ez dago. Erronka handia dugu parean.

Eraldaketa nondik etor daiteke?

Intermodalitatean dago gakea. Gurea bezalako lurralde polizentriko batean behar-beharrezkoa da. Gainera, Europatik datorren eta EAEen onartu berri den legeak hori azpimarratu du. Pertsona bati galdetuz gero ea



Irizarren bus elektrikoa ikusgai Andoaingo Goikoplazan, artxiboko irudian. AIURRI

transbordo bat egin nahi duen bidaia bat egiteko, ezetz esango dizu, baina transbordo hori egitea ezinbestekoa da toki batetik bestera azkar eta maiztasun handiarekin mugitzeko. Intermodalitatean sakondu behar da. Ariketa hori eroso egitea lortu behar da. Aurrekusteko modukoak izan behar dute eta, ahal den heinean, erakargarria. Garraio publikoaren sarea birpentsatu beharra dago.

Ematen al dira horretan pausoak?

Oso poliki. Garraio publikoa hainbat erakunderen eskuduntza delako. Hiriburuetan hiriburua kudeatutakoak ditugu, beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren ardurapekoak dira eta lurralde historiko bakoitzak bere inertzia eta bere mesfidantzak ditu. Horrela oso zaila da aurrera egitea. Teorian azkarrago goaz, praktikan baino.

Gazteak dira garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak. Hori halabeharrez da, ezin dutelako gidatu, edo badago pentsaera aldaketa bat?

Azken urteotan gazteek lehen baino beranduago lortu dute gidabaimena. Alternatiba eskainiz gero adin tarte zehatz horri, akaso, kotxea hartzeko une hori dezente atzeratu dezakete, eta, kasu batzuetan, hartu ere ez dute egingo. Baina hori hiriburuan lortzea errazago izan daiteke. Lurralde mailan beste arazo erantsi batzuk ditugu.

Hiriak, herriak eta herri txikiak. Saikapen horrek zenbateraino eragiten du mugikortasun ohituretan?

Gure lurraldeko herri txikiak ere errealitate urbanoaren parte dira, erabat. Landa eremuaz hitz egin dezakegunik ere zailak ditut. Beraz, herri txiki horiek existitzen jarraitzea nahi baldin badugu, uste dut haien mugikortasuna bermatu beharra dagoela. Eta hori soilik garraio publikoarekin ez da lortuko.

Guk ikusten dugun zailtasun nagusia da jende guztiak kotxea izatea ez dela bideragarria. Era berean, oso zaila da kotxea behar duenaren eta behar ez duenaren arteko muga jartzea. Baina ba al dugu alternatiba jasagarriak? **la bi milioi ibilgailu daude Hego Euskal Herrian, eta %70 inguru turismoak dira. Beharrezkoak dira hainbeste ibilgailu?**

Kotxea –hau gutxitan esaten da–, ez da makina batere eraginkorra. Kotxe batek bere denboraren % 95 aparkatuta pasatzen du. Bi tonako tramankulu bat da 80 kiloko pertsona bat mugitzeko... Efizientzia energetikoaren aldetik, ez da oso jasagarria. Etorkizuna? Jabetza elementu izatetik erabilera objektu izatera igarotzea. Ideia modura oso indartsua iruditzen zait niri.

Elhuyar Sorkuntza Beka Saria jaso zenuen 2021ean, "15 minutuko hiria, 45 minutuko lurraldea. Euskal kartografia garaikideak" izeneko lanarengatik. Zer dira hamabost minutuko hiriak? Zer dago kontzeptu horren atzean?

Hamabost minutuko hiria, berez, Parisetik etorri zen ideia bat izan zen. Carlos Moreno hirigintza-aholkulariak eta Anne

Hidalgo alkateak sustatu zuten ideia bat da, zeinaren bidez, oinez edo bizikletaz, hiritarra hamabost minutuan iritsi behar ko litzateke bere behar nagusiak asetzera: ikasketak, lana, erosketak, zaintza eta abar. Ideia oso ona iruditzen zait, baina Parisetik dator, eta, horrenbestez, hango testuinguruari erantzuten dio.

Gure herrietan eta hirietan hamabost minutuko erradio horretan gauza asko egin ditzakegu, uste duguna baino askoz gehiago, eta askotan ez ditugu egiten, baina badira beste behar batzuk asetzen oso zailak direnak. Eta lehenengo soldatapeko lana da. Gure lurraldea ezagututa eta gure idiosinkrasia, gure herriari diogun atxikimendu hori, oso zaila da bizi zaren toki horretan bertan lanpostua topatu ahal izatea ikasketak burutu duzun horretan, zuk nahi duzun horretan.

Mugikortasuna eta hirigintza ereduak aldatzeko baliabide ekonomiko handiak behar dira. Badago gauzak hobetzeko beste aukerarik?

Alde batetik, garraio publikoa hobetzeko aukera badago. Beste alde bestetik, badira beste esku hartze asko oso taktikoak direnak, ez direnak garestiak, baina politikoki zailak. Zenbat espazio kendu behar diegu kotxei? Sarri, arazoa ez da dirua izaten: Bidegorri bat txertatzeko ez ditugu hamabi aparkaleku kendu nahi hori egitea politikoki penalizatuta dagoelako. Txip aldaketa hori egitea behar-beharrezkoa da.



Bizikleta motorduna. AIURRI

Mugikortasuna, lurraldean barrena

Inoiz galdetu al diozu zeure buruari, irakurle, zein den toki batetik bestera mugitzeko erabiltzen duzun modua? TOKIKOM tokiko hedabideen sareak EITBrekin elkarlanean egindako ikerketa baten arabera, Gipuzkoan, ibilgailu pribatueta mugitzen dira, nagusiki, herritarrak (% 44), baita oinez ere (% 42). Garraio publikoari erreparaturaz gero, nabarmen baxuagoa da zenbakia: % 13ak darabil tren edo autobusa lekualdatzeko eta % 1a, aldez, garraio bide bat baino gehiago erabilia mugitzen da. Adinaren arabera behaketa eginda, ibilgailu pribatuaren erabilera handiagoa da lan egiteko adinean dauden pertsonen artean (20-64 urte). Oinezko mugikortasuna nagusi da 7-19 urtekoen artean (% 49) eta batez ere 65 urtetik gorako pertsonen kasuan (% 72).

Nondik nora egiten dira lekualdatze horiek, baina? Arreta Euskal Autonomia Erkidegoan jarrita, eguneroko desplazamenduen % 70 udalerrien barrukoak dira. Dena dela, Bizkaian eta Gipuzkoaren kasuan, mugikortasun-eremua zabalagoa izanik, biztanleak gehiago mugitzen dira eskualde edo lurralde osoan barrena, Arabarekin alderatuta.

Gipuzkoaren kasuan, desplazamenduen % 5 bizilekuaz bestelako beste lurralde historiko batera egiten dira, eta desplazamenduen % 1 soilik egiten dira EAetik kanpo.

Eta zergatik egiten dira mugimendu horiek guztiak?

Desplazamenduen ia erdia lana edo ikasketak direla eta egiten da. Zehazki, mugikortasunaren % 42 bi arrazoi horiei dagokie, eta lanerako mugikortasunaren pisua nabarmen handiagoa da (% 30), ikasketetarako desplazamenduekin alderatuta (% 12). Bestalde, pertsonak eguneroko erosketak eta zereginak egiteko ere mugitzen dira (% 29), aisialdiko jarduerekin lotutako desplazamenduekin batera (% 22).



Auto klasikoen bilkura Urnietan, artxiboko irudian. AIURRI

Darabilzkigun ibilgailuak, aztergai

EAEn, 1,4 milioi ibilgailu pribatu daude zirkulazioan, TOKIKOMen eta EITBren ikerketan bildutako zenbakiak oinarri hartuta: 10 ibilgailutik 7 autoak dira eta horien batz besteko adina oso gertu dago Espainiako Estatuko batez besteko zenbakitik: 14,5 urte. Gipuzkoaren kasuan, turismoen proportzioa apalagoa da (% 68,3), motozikleten pisu erlatiboa nabarmen handiagoa delako (% 14,3).

Hori horrela, geror eta hirigune gehiagotan ari dira emisio gutxiko eremuak zehazten, Donostian, esate baterako. Horregatik, etiketa jakin bat duten autoek soilik izango dute sarbidea mugatutako eremu horietara, urte batzuen buruan: nolana ere, gaur gaurkoz, gutxi dira, oraindik, 0 etiketa duten turismoak. Horren aurrean, C eta B etiketak dira nagusi, oraindik bereizgarriak ez duten autoen ehuneko handia den ibilgailu-parke batean. Ondorioz, datuek aditzera ematen dute nahiko zaharkituta dagoela ibilgailu-parkea, askok eta askok ez baitaukate zigilu bereizgarriak ipinita. Bestalde C eta B etiketek duten pisuaz jabetuta, argi ikusten da, oraindik, handia dela erregai fosiletan oinarritutako flotaren pisua.

C eta B etiketak eskatzeko prozedura

Donostian edota Bilbon erdigunera iristeko aukerak estutzen ari dira denboran atzera matrikulatutako ibilgailuen kasuan. Dagoeneko ezinbestekoa da identifikazio-marka ibilgailuan ematea. Hori lortzeko prozedura oso erraza eta azkarra da: Andoaingo edo Urnietako Correos posta-zerbitzuaren bulegora joan behar da. Ibilgailuaren matrikula leihatilan dagoen pertsonari adierazi eta Nortasan Agiri Nazionala erakutsi behar zaio. Matrikularen arabera ziurtagiri bat edo beste dagokio ibilgailuaren jabeari. Bost euro ordainduta, unean bertan jasotzen da pegatina. Ibilgailuan jarri behar da, aurrealdean, eskuinaldean eta behealdean.

Auto-elektrikoen kargarako puntuak, garaje komunitarioetan aztergai

Geroz eta gehiago, auto-elektrikoen kargarako puntuak agertzen hasi dira etxabeetan. Komunitate-talde handietan nola arautzen da hori? Administrazioak ba ote du zeresanik?

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) ez dago protokolo zehatzik, ziurrenik, ardura hori eroslearen esku dagoela zehazten duelako legeak.

Zer dio legeak?

Jabetza Horizontalaren Legearen 17. artikuluan azalpen argia ageri da, bere 5. puntuan: "Eraikineko aparkalekuan erabilera pribaturako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu bat jartzeko, aldeztu aurretik komunitateari jakinarazi baino ez da egin behar, baldin eta aparkaleku hori garaje-plaza indibidual batean badago. Instalazio horren kostua eta dagokion elektrizitate-konsumoa instalazioko zuzeneko interesdunek hartuko dituzte beren gain". Bestela esanda, auto elektrikoaren jabeak ez du bizilagunen baimenik behar. Haiek jakinaren gainean jartzea, hori da legeak jartzen duen betebeharra. Ez gehiago. Hori bai, kargarako aparailua garaje-plazan bertan jarri behar da. Aparkalekua bi marren artean zehazturikoa bada, eremu horretan bertan jarri behar da aparailua.

Behin ibilgailua erosita, zein da hurrengo urratsa?

Kontzesionarioan erosiz gero, saltzaileak berak saltokian bertan jaso ohi ditu irizpideak. Kotxearen jabea baimendutako instalatzaile batekin jartzen dute harremanetan eta honek, ohikoan, lehen behaketa lana egiten du, garajeetan bertan, instalakuntzari ekin aurretik. Gutxi-asko, 1.900 eurokoa da aparailuaren instalakuntza-gastua. Orain arte, ia gastu osoa dirulaguntzen bi-



Auto-elektrikoaren karga, Andoaingo Zumea plazaren azpialdeko aparkalekuan.

dez finantzatu ahal izan da. Estatuan, esaterako, orain arte indarrean izan da Moves Plana (Plan Moves) delakoa. Plan horren arabera, erosle partikularrak instalakuntza-gastu osoaren % 70eko dirulaguntza jaso zezakeen. Eta, Renault etxearen kasuan adibidez, kontzesionarioak berak gainerako % 30a finantzatu ohi du.

Zer da Moves Plana?

Espainiako Gobernuaren laguntza-programa, ibilgailu elektrikoak erosteko eta horiek kargatzeko guneak instalatzeko. Karga-puntua instalatzeari dagokionez, partikularrak, bizilagun-komunitateak, administrazio publikoak, autonomoak eta enpresak izan daitezke onuradunak. 2025ari dagokion plana onartu gabe dago oraindik. Denbora-tarte honetan, hutsune hori gainditzeko, Eusko Jaurlaritzak sei hilabetez luzatu du laguntza-lerroa, eta, beraz, Euskal Erkidego Autonomoan 2025eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Mikel



Motoaren karga, aparkaleku berean.

Amundarain Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren ebazpena 2024ko abenduaren 31ko EHAAn argitaratu zen. Eusko Jaurlaritzak egun haietan zabaldu zuen oharraren arabera, "Euskadik garaiz eta behar bezala lortu du mugikortasun elektrikorako laguntza nagusiek indarrean jarraitzea 2025eko lehen seihilekoan, eta, hala, mugikortasun iraunkorra sustatzen jarraitzea".





“Erabakiak hartzeko, datuez harago, bulegotik atera eta erabiltzaileekin harremana izan behar da”

JULEN LORENZO ANDOAIN

Garraio publikoaren defendatzaile sutsua da. Lanerako eta aisialdirako metatu duen esperientziatik abiatuta, bidaiaren eskubideen aldeko ekintzailea da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Datuen lanketa, hotzean, erabilgarria izan daiteke eta, aldiz, erabiltzaileekiko hartu-eman, gehienetan, deserosoa izaten da. Eta biak ala biak kontuan hartu behar dira, zerbitzu hobea eman nahi bada.

Lanera joateko desplazamenduak datuetan jaso dituzte. Zure iritziz, egunerokoan, zenbateraino hartzen dute aintzat bidaiaria?

Nik uste ez dela behar beste kontuan hartzen. Garraio publikoaren planifikaziorako datu gordinetan oinarritzen dira, eta datu masa horretan maiz ezkutatzen dira mugikortasunari loturiko beste ertz batzuk. Esaterako, ez dira behar bezala kontuan hartzen maiztasunak, ibilbidea osatzeko denborak... Erabakiak hartzeko, datuez harago, beharrezkoa da bulegoetatik ateratzea eta erabiltzaileekin harremana izatea. Modu horretan garraio publikoaren diseinu egokiagoa eta errealagoa egin ahal izango dute.

Azken ordukoak, matxurak, aldi baterako egokitzen lanak... horrelakoetan erabiltzailearen eskubideak behar bezala betetzen direla uste duzu?

Nire ustean, ez. Askotan, matxuren kasuan, beranduegi ohar tarazten dute erabiltzailea. Beste askotan ez dute abisurik ere ematen. Premiazkoa da: intzidentzia sortzen den unetik hori bera jakinarazteko bideak erraztu eta hobetu behar dira. Badugu nahikoa teknologia eta baliabide intzidentziak denbora errealean eguneratzeko eta informazio hori partekatzeko.

Garraio publikoaren erabiltzailea zara, lanerako ezinbestekoa zaizu



Julen Lorenzo andoaindarra, Lurraldebusen geltokian, Txistokiko pasealekuan. AIURRI

“INTZIDENTZIA SORTZEN DEN UNETIK HORI JAKINARAZTEKO BIDEAK ERRAZTU ETA HOBETU BEHAR DIRA”

zuri. Urteen poderioz zer nolakoa da zure sentsazioa? Zerbitzua ona da? Okertu egin da?

Orokorrean, gutxi bada ere, hobetu dela esango nuke, baina hobetzeko tartea badago oraindik. Adibidez, honako bietan: Lurraldebusen 2021eko uztailean martxan jarritako emakida (Beterrri-Buruntzari dagokiona) eta Renferen Aldirietako tren zerbitzua. Zerbitzua, orohar, txarra denik ez nuke esango baina oraindik ere erabiltzaileari hobeto egokitze aukera dagoela

ziur naiz. Garraio publikoak, oro har, hobetzeko tartea badu eta horretarako arduradunek erabiltzaileen egunerokotasuna gertutik ezagutu beharko lukete. Baliagarria zaigu Lurraldebusen 2021eko emakidarekin gertatu zena, adibide gisa. Erabiltzaileen presioaren eraginez hobekuntza batzuk jarri ziren martxan, baina oraindik emakida zaharrak eskaintzen zituen zenbait zerbitzu nabarmen okertu dira: ez dituzte garai bateko maiztasunak berreskuratu eta hori erabiltzaileen kalterako izan da. Tolosa-Andoain arteko joan-etorriez ari naiz, zehazki. Renferen kasuan ere, maiztasunak izugarri murriztu dira Donostia inguruko lanen ondorioz. Maiztasunak handitzeko tartea, zenbait ordutan, egon badagoela esango nuke. Beharrezkoa

dela deritzot. Txarrean, bada alde on bat: 2024ko apirilaz geroztik, zerbitzuarekiko ziurtasun sentsazioa hobetu egin da eta, orokorrean, atzerapenak txikiagoak dira.

Beterrri-Buruntz eta Tolosa-Goierriin garraio publikoari zein onura ikusten diozu? Eta zer da hobetu beharko litzatekeena?

Garraio publikoak askatasuna ematen du, bereziki, autorik ez dugunoi eta baita erabili nahi ez dutenei ere. Mugitzeko aukera ematen digu, beste pertsona batekiko dependentziarik izan gabe. Festara inguruko udalerrietara mugitzeko aukera baliagarria da, dibertitu ostean segurtasunez etxera bueltatzea ahalbidetzen digulako.

Lehen aipatu badut ere, zerbitzuak erabiltzaileon egunerokoari eta beharrei egokitzen ez diren bitartean, hobetzeko tartea handia izango da. Adibidez, Lurraldebusen kasuan, Tolosara joateko linean (BU07) hobekuntzarako tartea handia dago. Emakida horretako bigarren linea erabiliena da, gainera. Kadentzia hobetu beharra dago, zerbitzuaren jarraitutasuna eta maiztasuna hobeto ulertzeko. Hori nola egin? Ordua beti bera ezarriz, adibidez, goizeko 07:15ean, 08:15ean, 09:15ean...

Hobekuntza gehiago egin daitezke: Donostiako Ospitalerako lotura hobetu beharra dago, maiztasuna handituz eta eremu gehiagotara zabalduz; Donostia-erekiko lotura zuzenak ezartzea aztertu; eta, azkenik, langileen sarrera eta irteera ordua gehiago kontuan hartu beharko litzateke.

Aldirietako tren zerbitzuan, Renferen kasuan, Tolosako Inauteritako zerbitzu bereziari erreparatuta, ondorioztatu dut badagoela tartea egunean 7-8 zerbitzu berri gehitzeko Beasain-Tolosa-Andoain eremuan. Ez dira erabakiak linea osora begira hartu behar, akaso, lineartarte jakin batean egin behar dira doikuntzak.

EITBK eta TOKIKOMek elkarlanean landu dute pertsonen mugikortasuna aztertzen duen txostena. Zer egin zaizu deigarria?

Batez ere, auto pribatuak oraindik ere egunerokotasunean duen garrantzia. Garraio publikoa erabiltzaileon beharretara gehiago egokituko balitz, ziurrenik, autoaren erabilera nabarmen murriztuko litzateke.



Bus zerbitzua, Urnietan. AIURRI

Pertsonen mugikortasuna, datu bidez

Gipuzkoan, mila biztanleko 312 bidaia egiten dira egunero autobusean, TOKIKOM sareak EITBekin egindako ikerketaren ondorioek ziurtatzen dutenez: 2023an, bidaia horietatik guztietatik 112 (% 36) Donostian bakarrik egin ziren, eta Dbusi zegozkien. 199 (% 64), berriz, lurraldeko gainerako udalerrien artean egin ziren, tartean, Donostia jatorri edo helmuga duten hiriarteko autobus-lineak barne.

Hiriburuen artean Donostia-Bilbo lotura da nagusi, ibilbide horretako 21.000 joan-etorri egiten baitira egunero; Donostia-Gasteiz loturak, berriz, askoz datu apalagoak ditu (5.200).

Trenaren erabilerari erreparatuta, Euskotren zerbitzua gehiago erabili zen 2023an Renfe baino: egunero, lehenaren kasuan, mila biztanleko, 60,3 bidaia egin ziren. Bigarrenaren kasuan, berriz, mila biztanleko 27,2 bidaia izan ziren egunero. Halaber, nabaria da azken urteetan bi garraio bideen erabilerak eduki duen goranzko joera.

Trenez edo autobusez, erabiltzaileen datu osoak aintzat hartuta, goranzko joera antzematen da 2022ko eta 2023ko datuak alderatzen jarrita.



Unai Gaztelumendi eta Eli Pagola, kantuan, kupelen artean. AIURRI

Bertso-festa, kupelen artean

Guztira, 60 lagunetik gora bildu ziren Altuna sagardotegian, Urnietako Gaztetxeak eta Aiurri astekariak elkarrekin antolaturiko hitzorduaz gozatzeko. Unai Gaztelumendi eta Eli Pagola izan ziren gaueko protagonistak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Gozotik ibili ziren, joan den ostiralean, herriko bertsozaleak Altuna sagardotegian. Gaztetxeak eta Aiurrik elkarrekin antolatu zuten hitzordua eta 60 lagunetik gora batu ziren, asteburuari, kupelen artean, ongi-etorria emateko, Eli Pagola eta Unai Gaztelumendi bertsolarien erri-mapean. Iluntzeko 20:30ean egin zuten hitzordua sagardotegiko atean, denboraldiko menua dastatzeko asmoz: txorizoa, bakailao-tortilla, txuleta, gazta, irasagarra, intxaurrak... Behin tripa bapo beteta ekin zioten protagonistek abesteari. Biek ala biek dute harreman estua herriarekin: Unai Gaztelumendi Xoxokan bizi da eta Eli Pagolak urteak daramatza bertako bertso-eskolako irakasle-lanetan. Hori horrela, herriko errealitatea gertutik ezagututa, Urnieta-

ri buruzko gaiak izan zituzten hizpide, hasiera-hasiatarik: Xoxoka, Gaztetxea, kiroldegia...

Eztarria lehortu aurretik, atsendaldia egin zuten bertsolariek, eta aitzakia ederra izan zen kupelen artera jauzi egiteko. Hala, umorea izan zen nagusi saioaren bigarren zatian. Askotariko doinuak erabilia, baita puntuka ere, entzuleak barrez lehertzeko moduko bertsoak bota zituzten, harik eta gaueko ordu txikiak iritsi arte. Amaitzeko, bukaerako bertsoaldietan, esker hitzak izan zituzten bi kideek bertara gerturatutakoekin:

ENTZULEAK BARREZ LEHERTZEKO MODUKO BERTSOAK BOTA ZITUZTEN

Esker hitzak, betsotan

Eli Pagola:

Premisa bat normala da praktikan jarria, jada horrelako planetara joan beharra nahi baino gehio premia ez ote da ba ze joan, joan egin behar da, Unai gero itzuli nahi bada.

Unai Gaztelumendi:

Idea eta teori gure eskutan zer hori ba al zan nahiko kategori? Etxera goaz baina esanda pasatu degula ongi. Segi lanean, segi borrokan ta eskerrik asko denori!

Eskertza

Altunari, Manttaleri, bertsolariei eta hurbildu ziren guztiei, eskerrik asko! Argazkiak eta bideoak eskegita daude Aiurriren web orrialdean.

Bertso-afaria Altuna sagardotegian



Eli Pagola, Unai Gaztelumendi eta Xabier Altuna. AIURRI

Gaueko protagonistak Altuna sagardotegiko Xabierrek, besozabalik jaso zituen, joan den ostiralean, berera hurbildutako urnietarrak eta inguruko herrietako bertsozaleak. Pagola eta Gaztelumendi izan ziren gaueko protagonista bereziak.



Urnietako lagun-taldea, bertso-afarian. AIURRI


Lagunartean Aitzakia ederra eman zion bait baino gehiagori ostiraleko hitzorduak aspaldi ikusi gabeko herrikideekin afartzeko. Hori horela, askotariko adinetako bertsozaleak elkartu ziren mahaiaren bueltan, sagardotegiko menu goxoaz gozatzeko.



Arreta handiz jarraitu zituzten bertsoak, sagardotegiko mahaietatik. AIURRI

Bertsoa Postrea ateratzearekin batera ekin zioten bi bertsolariek saioari. Umorea izan zen nagusi hitzoduan eta Urnietarekin estuki lotutako gaiak jorratu zituzten bertsotan, biek ala biek baitute harremana herriarekin.

Aiurri.eus: Urte osoan zabalik



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

Berria txapelketako finala, larunbat honetan

Goikoetxea V.a eta Goikoetxea VI.a Berria Txapelketako finalean ariko dira datorren asteburuan, finalurreko bizian Susperregi eta Apezetxea gaindituta. Astebete lehenago sailkapena lortu zuten Eskudero eta Gurrutxagak, Zubiriri eta Irazuri irabazita

Erredakzioa URNIETA

Emozioz beteriko finalurrekoak izan dira biak. Irabazle argirik gabe, hiru setetara jokatu dira bi finalurrekoak. Nola iritsi dira finalera? Honatx, laburpena.

2 Goikoetxea V-Goikoetxea VI 1 Susperregi Apezetxea (15-14, 14-15, 6-8)

Berdintasun handiko partida izan zen, azken setean erabaki zena. Goikoetxeatarak kanpoan zeudela zirudienean, bost puntu egin zituzten erreskan. Pozez zorutzen ospatu zuten garaipena. Esan bezala, azken setean Susperregi eta Apezetxea 6-3 zeuden aurretik. Bada, bai, irabazleek azken txanpan 0-5eko azken partziala egitea lortu zuten. Bieta-ko edozein bikotek lor zezakeen sailkapena, finalerdia nola joan den ikusita. Hirugarren seteko 6-6koa izan zen partidako tantorik onena. Azken bi tantoak, berriz, Goikoetxea V.ak egin zituen atzetik jotako pilotaka onekin. Finaleko aurkariak zain dituzte.

2 Gurrutxaga-Eskudero

1 Irazu-Zubiri (15-8, 8-15, 8-6)

Izan ere, Gurrutxagak eta Eskudero astebete lehenago lortu



Goikoetxea urnietarra, artxiboko irudian. ORIAMENDI

zuten Berria Txapelketako finalerako txartela. Irazu eta Zubiri 2-1 gainditu zuten, emozio handiko partidatan. Oriamendik jasotako kronikaren arabera, aizarnazabaldarrak eta andoaindarrak merezimendu osoz lortu zuten finalerako txartela. Lehen setean nagusi izan ziren, berehala abantaila hartuta. Lehen setean Eskudero oso ondo aterra zuen eta Gurrutxaga fin ibili zen errematean. Atzelari andoaindarrak zazpi tanto egin zituen saketik eta aurrelariak sei piloteoan.

Bigarren setaren hasiera antzekoa izan zen baina azken tantoetan aurkariak fin ibili ziren. Azken set erabakigarrian, 4-4ko eta 6-6ko berdinketara iritsi ziren. Eskudero 7-6koa jarri zuen pilotakada on batekin eta azken tantoa Gurrutxagak egin zuen.

Jendeak gozatua hartu zuen Berria txapelketako lehen finalurrekoan. Bi bikoteek, gainera, zaletu asko eraman zituzten Galarretara. Final handian ere sarrera ona izatea espero da.



UZQUIANO

Espainiako Boccia txapelketara

Boccia kantzua estali batean jokatu da eta laruzko bolak jaurtitzean datza, boccino izeneko pilota zuri batera ahalik eta gehien hurbiltzeko helburuarekin. Petankaren antzeko kirola da, aniztasun funtzionala duten pertsonen egokitu. Ostadar taldean ari da Markel Uzquiano Lopez de Gereñu andoaindarra eta apirilaren hasieran Espainiako txapelketan aritzeko sailkatu da.



BURUNTZALDEA IKT

Maila ona, Usabal igerilekuan

Alebin Ligako 5. jardunaldia jokoan izan zen Tolosako Usabal kiroldegian. Buruntzaldea IKT taldetik Aitor Ormazabal, June Apeztegia, Aiala Erro, Iزارo Bautista, Kerman Miguel eta Urko Azpiazu aritu ziren. Benjamin mailan, berriz, igerileku berean aritu ziren Oier Azpiazu, Nora Becerra eta Leire Lopez andoaindarrak.

MARTXOAK 29 | 15:15ETIK AURRERA
LARUNBATA | **GALARRETA JAI ALAI HERNANI**

1. PARTIDA:
GOIKOETXEA V • GOIKOETXEA VI vs GURRUTXAGA • ESKUDERO

2. PARTIDA:
URRIZA • BARRENETXEA IV vs ALDABE • SEGUROLA • AZPIROZ

3. PARTIDA:
ANSA II • APEZETXEA vs JABALERA • JUANENEA

SARRERAK



ANDOAINGO

Andoaingo Txirrindulari Eskolak ekin dio denboraldi berriari

Benjaminak: Xuhar Baltasar, Martin Lopez, Aratz Torres, Xuar Otamendi, Iker Flores eta Harri Otaegi. Prestatzaileak: Jose Sanchez eta Pedro de Godos. **Alebinak:** Aaron Abreu, Aiert Zelaia, Iker Albisua, Xabi Felipe, Ibai Arregi, Danel Rodriguez eta Aimar Guisado. Prestatzaileak: Jose Sanchez eta Joxe Barberena. **Infantilak:** Aner Barrenetxea, Beñat Izeta, Xan Lujanbio, Liher Labaka, Urko Zelaia eta Liher Albizu. Unax Urizar falta da argazkian. Prestatzaileak: Patxi Altuna

eta Pedro de Godos. **Neskak:** Prestatzaileak: Ana Usabiaga. Maddi Ormazabal eta Olaia Gayoso, kadete mailakoak; Irati Aranguren, Intza Del Teso eta Izaro Etxarri, junior mailakoak). Nahia Garcia falta da argazkian. **Kadete mutilak:** Markel Aburuza, Oinatz Arruti, Luken Garmendia, Xabat Martin, Ugaitz Tejeria, Lizar Zuriarrain, Unax Guisado, Amets Mugika eta Adur Alcalde. Prestatzaileak: Xemark Arteaga, Unai Galarza, Jon Mikel Mujika eta Aitzol Zuriarrain.



Euskalduna Ubitarte zelaian, artxiboko irudian. AIURRI

Roteta, Euskalduna eta Orioko taldeak lehia bizian dira

Gorengo mailako jardunaldi berrian emozio handiko partida dago iragarrita: Orioko eta Euskaldunaren artekoa

Erredakzioa ANDOAIN

Liga aurrera doa eta amaitzeko sei jardunaldiren faltan lehia amaigabea da. Ez du inork etsi nahi eta lehen postuari eusteko borrokaldian indarrak parez pare daude. Laugarren sailkatua, Santo Tomas Lizeoa, atzealdean geratzen ari da. Baina lehen hirurek ez dute etsitzen eta, egutegiari erreparatuta, emozio handiko jardunaldia dugu aurretik: Orioko-Euskalduna. Galteko asko dago eta egoera baliatu dezake Roteta liderrak. Baina eurek ere partida zaila dute, Touring B-ren aurka ariko

baitira. Berriki, Touringek Santo Tomas garaitu du eta, lehen itzulian, Roteta 3-1 gaitzitu zuten.

FUTBOLA

GORENGO MAILA, 24. jardunaldia:
EUSKALDUNA-AMARA BERRI **4-0**

SAILKAPENA

1	ROTETA	53 p.
2	EUSKALDUNA	49 p.
3	ORIOKO	49 p.
4	SANTO TOMAS LIZEOA	42 p.
5	TOURING B	40 p.

GORENGO MAILA, 25. jardunaldia:
ORIOKO-EUSKALDUNA

Emozio handiko jardunaldia, asteburuan

Urnieta Artola Harategiak play-offean sartzeko lanean jarraitu behar du oraindik

Erredakzioa URNIETA

Bi jardunaldi besterik ez dira geratzen liga amaitzeko eta Urnieta Artola Harategiak play-offean sailkatzeko borrokan jarraitu beharko du. Ez da hori urnietarren kontua bakarrik. Izan ere, jardunaldi honetan emozioa gori-gori izango da: sailkapeneko lehen seirak elkarren aurka ariko dira.

ESKUBALOA

LURRALDEKO 1. MAILA, 20. jardunaldia:
ORDIZIA-URNIETA **34-29**

SAILKAPENA

1	HONDARRIBIA BIDASOA	36 p.
2	DONIBANE	30 p.
3	MEK EIBAR	27 p.
4	ORDIZIA	25 p.
5	URNIETA ARTOLA	24 p.
6	TXINGUDI GOIBAR	21 p.

21. jardunaldia:
HONDARRIBIA BIDASOA-MEK EIBAR
TXINGUDI GOIBAR-ORDIZIA
URNIETA-DONIBANE



URNIETA

Garaipen bikaina

Urnieta Kamox Precision Machining kadete mailako neskek denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten, aurreko asteburuan, Bergara KE taldearen aurkako partidari (29-22). Serio aritu ziren, garaipenaren bila partida osoan. Eta horrela lortu zuten saria. Infantil mailako Urnieta Nam Restaurantes taldeak ere partida irabazi zuen, Ordizian (18-23).

Hirutik hiru, Kopan

Emakumezkoen gorengo mailan, Urnieta igoera fasea jokatzeko ateetan geratu zen. Kopan ari dira orain eta hirutik hiru partida irabazi dituzte. Asteburu honetan Mariño Real Union B taldearen aurka ariko dira.

Mutiletan, lehen taldea 1. Erregional mailako igoera fasea jokatzeko ari dira. Bigarren postuan dira, 8 jardunaldi eta gero.



AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANTZERKIA

ANDOAIN Evaren alabak
"Ring" antzezlana.
Martxoak 29, larunbata.
18:00, Bastero.

ANDOAIN Gorakada taldea
"Moko", Bilintxen bizitzan
oinarrituriko istorioa.
Martxoak 30, igandea.
12:00, Bastero. 4 euro.

JARDUNALDIK

ANDOAIN Lumakadaka Eguna
Buruntzaldeko transmaribollo
sareak Lumakadaka Eguna
antolatu du. Goizean hasita
eta ordu txikieta bitarte,
askotariko hitzorduak izango dira
Andoainean.
Martxoak 29, larunbata.
Egun osoko ospakizuna.
Udalerría eta Gaztetxea.

MUSIKA

ANDOAIN Ainara Ortega
Jazz estiloko kontzertua eskainiko
du kantariak Joaquin Chacon jazz
bikoteak lagunduta.
Martxoak 28, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

URNIETA Kantujira
Hilabetearen amaierarekin bat
eginez, irteera berria egingo du
Kantazaun taldeak.
Martxoak 28, ostirala.
19:00, San Juan plaza.



Olaia Intziarte. INTZIARTE

ANDOAIN Olaia Intziarte

"Zerrautsa" disko berriena aurkeztuko du Andoainean, udaberriko programazioari hasiera emango diona. Sarrerak, ekitaldi honetarako, dagoeneko salgai daude.

Apirilak 4, ostirala. 19:30, Bastero Kulturgunea.

URNIETA Entsegu-irekia

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak "Cantania-50 milioi segundu" ipuina estreinatuko du euskaraz, Joan Vives Catalunyako egileak idatzi eta Juan Kruz Igerabidek itzulita. Bea Garcia musika-hizkuntzako irakaslea ari da Lourdes Iriondo Musika eskolako ikasleak prestatzen ekimen honetan parte hartzeko. 150 haur arituko dira abesten oholza gainean, 8 instrumentista, eta bi bakarlari. Igandekoa entsegu-irekia izango da.
Martxoak 30, igandea.
17:30, Sarobe.

EKITALDIA

ANDOAIN Aurkezpena
Hamaikakoaren aurkezpena.
Apirilak 4, ostirala.
18:00, Plaza Morea.

TXAPELKETA

ANDOAIN Mus txapelketa
Mus-txapelketa antolatu du Irunberri. Izen-ematea bertan egin daiteke. Bikoteko, 15 euro.
Apirilak 5, larunbata.
16:30, Irunberri.

Errigorako saskiaren zozketa

Martxoan Errigorako udaberriko kanpaina abiatu da eta Aiurriko astekariko harpidedunek sari ederra etxera eramateko aukera izan dute. Zozketan parte hartu dutenen artean irabazlea Haize Lasa Elizagarate izan da. Zorionak eta on egin! Nekane Elizagaratek, Haizeren amak, jaso zuen saria.




AIURRI

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Los aitas
Martxoak 29,
larunbata. 19:30.
Martxoak 30,
igandea. 19:30.
Martxoak 31, astl.
17:00, 19:30.

Lurrak eztanda egin zuen eguna. Looney Tunesen filma.
Euskaraz.
Martxoak 29,
larunbata. 17:00.
Martxoak 30,
igandea. 17:00.



SINOPSIS

Los aitas

Zuzendaria: Ellen Kuras. **Aktoreak:** Juan Diego Botto, Quim Gutiérrez, Ramon Barea, Sofía Otero, Dominique Dauwe, Mikel Losada... **Herrialdea:** Espainia. **Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 88 m.

Altos Hornos-en garaiko filma

80ko hamarkadaren amaierako Bilboko langileen periferian, gimnasia erritmikoko haur-talde batek txapelketa batean parte hartzeko aukera du Berlinen. Amek ezin dietenez alabei lagundu, langabezian diren gurasoen zeregina izango da. Aitek ez dirudite oso interesatuak bidaian, ezta kirol jarduera horretan eta alabengan ere.

**Andoain Laburrean lehiaketaren edizio berria martxan da**

ESCIVI Zinema eta bideo eskolak eta Andoaingo Udalak antolatzen duten lehiaketa hamargarren ediziora iritsi da. Zinemagile eta zinemazale amateurri zuzendutako lehiaketa da, euskarazko bideo laburrak egitea xede duena. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 19a izango da. Gaia librea izango da, baina leihobat azaltzea ezin-

bestekoa da, izan zeharka, izan istorioaren elementu garrantzitsu gisa. Lehen saria 500 eurokoa izango da; bigarren saria, 300euroa; eta, ikuslearen saria, 150euroa. Herriarrek www.andoainarraeuskaraz.eus web orrialdearen bidez bozkatzeko aukera izango dute.

Sari banaketa ekitaldia 2025eko ekainaren 4an izango da Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00tan hasita.

Horra, beraz, zinemagileentzat aukera aparta.



Azokaren aurkezpen ekitaldian, Lanbide Heziketako eta Andoainen ordezkariak duten alderdietako ordezkariak. AIURRI

Lanbide Heziketako eskaintza, eskura

Martxoaren 29an Andoaingo I. Lanbide Heziketako Azoka antolatu dute. Plaza Morean izango da, goizeko 10:00etik 13:00era. Xehetasun gehiago www.lanbideheziketa.eus/azoka webgunean aurki daiteke

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Lanbide Heziketaren eskaintza ezagutzeko aukera izango da, larunbat honetan. Aurreko astean egin zuten estreineko antolatu den azokaren aurkezpena. Bertan hizlari aritu ziren Andoni Alvarez Andoaingo alkatea eta Andoainen Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten hiru ikas-tetxeetako ordezkariak. Hots, Iñigo Aizpuru, Escivi Bideo eta Zine Eskolako zuzendari-ordea; Xabier Garin, La Salle Berrozpeko Lanbide Heziketako ziklo-entzako arduraduna; eta, Debora Herrero, Leizaran Institutuko Arreta Zikloko Mintegi burua. Andoainen bertan 16 eskaintza edo ikasketa-ziklo desberdin ikasteko aukera dago, eta horien guztien xehetasunak emango dituzte larunbateko azokan.

"Herrikide askok ez dute behar bezala ezagutzen bertako ikas-tetxeek Lanbide Heziketaren arloan duten eskaintza anitza. Hain zuzen, aberastasun hori ikusaraztea da Azokaren helburua", adierazi zuen Andoni Alvarez alkateak azokaren aurkezpen-ekitaldian.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Claudia Vivas Acosta

Zorionak Clau! 10 urte beteko dituzu! Egun zoragarria izango da, asko maite zaitugu!!! Muxu handi bat!!

MERKATU TXIKIA

TXIMINIAREN GARBIKETA

Su baju eta ekonomikoen garbiketa. Julen: 610 628 848

ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650 341 108.

SALMENTAK

Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

Emakumeentzako txirinda. 60 euro. Harremanetarako: Pili: 610 953 258.

MERKATU TXIKIAN IRAGARRI NAHI DUZU?

Bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota [whatsapppe](https://www.whatsapp.com): 619 163 537

LABORAL kutxa eta AMA Tolosa -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.


Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta 2 lagunentzako **gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu** batean*.



HARTU PARTE HEMEN:

laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa




*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 lagunentzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 lagunentzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat



Andoaingo Rock Jaialdiaren aurkezpena egin zuten Plaza Morean, Bastero Kulturgunearen aurrealdean. AIURRI

Andoaingo Rock Jaialdiaren egitaraua aurkeztu dute

Hamazazpigarren ediziora iritsi da Andoaingo Rock Jaialdia: datorren ekainaren 7an izango da. Europako, Amerikako Estatu Batuetako eta Euskal Herriko ordezkariak entzuteko aukera paregabea egongo da

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekainaren 7an Nafarroa plaza rockzaleez beteko da. Beste behin ere, askotariko estiloa eta jatorria duten taldeak zuzenean ikusteko aukera izango da. Guztiak ere, oinarrian, gitarrak baliatzen diren taldeak direla esan daiteke. Honatx, taldeen aurkezpena:

EZEZEZ

Euskal Herriko ordezkariak Nafarroa plazako oholta gainean. 2022an lehen diskoa argitaratu

zuten. Beren errepertorioan 70eko hamarkadako psikodeliatik grunge berrizailera bitarteko denbora-ildo bat marraztu dute.

DUMMY

Kaliforniakoak musika hipnotikoa egiten abilak diela diote antolatzaileek. "Free energy" diskoa irailean aurkeztu zuten.

HOLIDAY GHOSTS

London aldetik datorren pop-rock musika. Gitarra elektriko garbiak, kantu gehienetan.

THE BLACK WIZARDS

Portugal aldetik zuzeneko bortitza duen musika taldea, rocka eta soula uztartzen duena.

A PLACE TO BURY STRANGERS

New Yorkeko bandarik zaratsuen, noise-rock ikuskizuna, horrela deskribatu dute antolatzaileek.

AMOR LIQUIDO

Madrilatik datorren talentu berria. Letra frexko eta basatiekin. Art punk estiloa, Andoainean.



Gurrutxaga, Gori Gori taldekoa.

Aperitif saioak, eguerdian

Rock Jaialdia egun osora zabaltzeko joera indartuz doa, urtez urte. Zaletu amorratueneke ere badakite, eguerdian hasita, kontzertu gehiago izaten dela. Aperitif saioak izenez ezaguna da eta musika giro bila datorrenarentzat, hona aurtengo eskaintza:

Rukula:

12:00, Zumea plaza.

"Oian Agirretxek (bateria), Martxel Arkarazok (bajua), Jon Agirianok (gitarra) eta neuk osatzen dugu taldea. Rock dantzagarria egiten dugu. Gertutasuna dugu gogoko, eta, horretarako, publikoarekin kontaktu zuzena edukitzen saiatzen gara", adierazi zuen Furundarenak aurkezpen-ekitaldian.

Gori Gori:

13:00, Plaza Morea.

Errenteria eta Hendaiako taldea Ainara Gurrutxagak eta Ander Fernandezek osatzen dute. Musika elektronikoa da euren eskaintza.

Marte Lasarte:

14:00, Goikoplaza.

Skakeitan taldeko partaide Pello Armendarizek (ahotsa) eta Borja Antonek (gitarra-jotzailea) sortu zuten, iaz. Geroztik, Alex Alonso (bateria) eta Lore Billelabeitia (baxu-jotzailea) batu zaizkie.



Axeri Dantza eraman dute azalera.

Basteroko udaberriko programazioa aurkeztu dute

Axeri Dantzaren 50 urteko ibilbidea erakusketara eramango dute, maiatzaren 9tik aurrera

Erredakzioa ANDOAIN

"Axeri Dantzaren 50. urteurrenean, 25 urte bete dira emakumeak talde esanguratsu honetan hasi zirenetik, eta hori dela eta, herritarrek urtez urte bizi izan dutena gogoratzeko eta ibilbide honetan arrastoa utzi duten hainbat pertsonari omenaldi txiki bat egiteko helburuarekin, erakusketa bat antolatu da Bastero Kulturguneko erakusketa-gelan", hitz horiekin aurkeztu du Basterok udaberriko programazioan nabarmentzen den ekitaldietakoa. Maiatzaren 9an zabalduko dute, ekainaren 27ra arte. Hots, Sanjuanak eta Axeri Dantza igaro arte.

Arte eszenikoak maiatzean

Barrexerka, Aztia eta Arizona antzezlanak Bastero Kulturguneko oholtzan ikusteko aukera izango da. Eta ez horiek bakarrik, izan ere Antton Telleriak "Ninini" bakarriketa berriena ekarriko du Andoainera.

Amazoniako indigenen musika

Musika ikuskizunekin jarraituz, Ensemble Moxos Amazoniako indigenez osatutako talde boliviarrak da hurbilduko da. Eskuorria udalerrri osoan banatzen ari dira, egunotan, eta sarrerak dagoeneko salgai dira.